

Ezpalak

JON TORNER

Ramon Barea *Nos sentamos a hablar* dokumentala aurkeztu du. Filmak arte eszenikoek Euskal Herrian bizi duten "egoera kaxkarraz" hitz egiten du. Besteak beste, Goi Mailako Eskola sortzeak duen garrantzia, enpresa publiko eta pribatuen jarduna, aretoak eta ikusleak ditu hizpide. Horrez gain, hainbat emanaldiren irudiak eta dozenaka aktore, zuzendari, dantzari eta politikariren adierazpenak bildu ditu Barea. Horien artean daude, adibidez, Alex Angulo, Marivi Bilbao, Asier Etxeandia, Helena Pimenta eta Igor Yebra.

Pello Añorga eta **Jokin Mitxelena**ren *Gerlari handia* lanak irabazi du Nafarroako hainbat euskara zerbitzuko antolatutako Etxepare Literatur Saria. Añorgak eta Mitxelena 6.000 euroko saria jasoko dute haurrentzako album ilustratua sortzeko.

Maite Garcia Melchor artistaren argazkiez osatutako erakusketa paratu dute Gasteizko Ignacio Aldecoa kultur etxean. *Egunetatik harago... lekua* izenburupean, ukitu koloretsuz zipriztindutako zuri-beltzeko hainbat argazki bildu dituzte bertan. Irudi gehienetan paisaiak eta eraikinak agertzen dira. Erakusketa uztailearen 15a arte izango da ikusgai.



Maixan Merkapidek *Berrian*: «Izan dira adibide batzuk euskal kultura frantsesez ekoiztu dutenak edo euskal kulturaren proiektu batzuk, indar franko ematen euskaldun ez den publikoari buruz euskal kultura ezagutarazteko, baina denbora berean frantsesez eginenez. Euskal kulturaren desbideratze bat sentitzen dugu. Euskara kulturatik desagerraraztekotan da. Frantsesez egiten den kultura euskal kultura da? Lehen baino uzkurrago ibili behar dugu. Euskal kultura biziartzeko egiazko gune batzuk zaindu behar ditugu jendartean ez baita naturalki bizitzen iragan hamarkadetan bezala».

Unai Elorriaga idazleak *Deian*, Espainiako Sari Nazionala irabazi zutenan (30 urte baino gutxiagorekin) errezeloz begiratu ote zioten galde-tzean: «Nik ere hala egin nuke. Berrogeita hamar urte daramatzazu idazten eta... ezer ere ez! Bat-batean gazte bat iristen da eta irabazi egiten du. Gizalegea da, baina kalitateak ez du adinik. Duela gutxi Delibesi gazteak saritzeko ausardiaz hitz egiten entzun nion, modu horretan aurrerantz egin dezaten. Horretan sinesten dut. Saramago saritzen baduzu, zure saria saritzen duzu».

Leioako Umore Azoka

MAIATZAREN 31 TIK EKAINAREN 3RA egingo da Leioako Umore Azoka. Mundu osoko 49 taldek 160 emanaldi eskainiko dituzte herriko 17 agertokitan. Azokaren zortzigarren edizioan parte hartuko duten euskal taldeetatik bostek jaialdi hau aukeratu dute euren lan berriak estreinatzeko. Emanaldiez gain, Artekale jardunaldiak egingo dituzte ekainaren 1ean eta 2an. Kaleko arteen hizkuntza berriak, eta sormenean, banaketan eta erakustaldietan sortu diren beharrezan aurre egiteko estrategiak izango dituzte mintzagai aurtengo jardunaldietan.

Kimuak programak 2007ko deialdia ireki du

FILM LABURRAK SUSTATZEKO 2007ko deialdia ireki du Kimuak (www.kimuak.com) programak. Uztailearen 20ra arte aurkeztu ahal izango dira lanak. Ikus-entzunezko bost profesionalek hautatuko dituzte aurtengo katalogo osatuko duten film laburrak. Iazko film laburrak 300 jaialdi baino gehiagotan aurkeztu zituzten eta 44 sari irabazi dituzte jada. 2005eko katalogoko zazpi laburrek 200 sari baino gehiago eskuratu zituzten, horien artean Oscar bat. Kimuak programak hamar urte beteko ditu aurtengoa. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi berezi egingo dituzte.

Bonbereneatik Tolosako herritarrei mezua

TOLOSAKO BONBERENEA etxeko (www.bonberenea.com) kideek hauteskunde kanpaina dela-eta Bonberenearekin egin den "erabilera elektoral" salatzen dute. Herritarrei zuzendutako oharrean diotenez, hauteskunde eguna baino lehen Bonberenearen etorkizunari buruzko artikulua plazaratu zuen egunkari batek. Artikuluaren harira, Bonberenea "lehia elektoralean" ez sartzeko eskatu diete Jokin Bildarratz alkateari (EAJ) eta gainerako alderdi guztiei. Euren hitzetan, "Bonberenea ez da oraindik akordio batera iritsi Tolosan lanean diharduen inongo alderdi politikorekin".

AQUARIUM

Karlok Blasco de Iruar Plaza, 1
20001 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel: 943 44 00 99
e-posta: aquarium@aquarium.com • web-ortia: www.aquarium.com

AQUARIUM
MUSEO DE CIENCIAS NATURALES

Bertsoa eta musika garaikidea elkarrizketan

HERNANIKO KRONIKA



Abarrak

ESTITXU EIZAGIRRE

Obra: Ornitorrinkus

Saxofoia: Judith Montero

Hitzak eta bertsoak: Maialen Lujanbio

Musika elektronikoa: Xabier Erkizia

Argiztapen eta eszena zuzendaritza: Miguel Galindo

Atrezorako eskultura: Juan Gorriti

Jantziak: Ixiar Zugasti

Lekua eta eguna: Hernaniko (Gipuzkoa) Leoka labaderoa, ekainaren 9an, 22:30ean. Euria bada, ekainaren 10ean, ordu berean.

“Ornythorhyncus paradoxus: Baldin eta sailka ezina, orduan ‘sailka ezin’ bezala sailkatua”. Ereduetatik kanpoko izaerak eta izan ezinak lantzen ditu emanaldi esperimental honek. Eguneroko bizitza “normalean”, “garrantzitsuan”, prentsan, ikusezina diren gaiak ere bai. Esperimentazio bakoitza izango da bakarra, eta bigarren emanaldi hau Leoka labaderoan egingo dute. Justu herri zentrotik kanpoko uretan, plazaren garrantzia eman ez zaion emakumeen bilgunean, jende arruntaren kontuak jotzen ziren harrietan.

Musika garaikideak –saxofoi sopranoa, altua, tenorra eta baritonoa– eta bertsoak –formarik zabalenean, hitzetik beretik abiatuta– bat eginik hizkuntza propioa osatu dute. Musika garaikidean eta bertsoan, bietan arakatu eta urratu du *Ornitorrinkusek* bidea, eta bi generoen arteko elkarrizketa sortu. Ez dira, beste emanaldi askotan bezala, bata nagusi eta bestea laguntzaile, ez bi petatxoren batura, ez elkar jaten

duten zipriztinak. Ornitorrinkusak espezieen topikoak nola, musika garaikideak eta bertsoak ere euren topikoak hautsi dituzte: Musika garaikidearen ustezko ulertezinkeria eta bertsoaren ustezko tradizionalkeria. Lazko abenduan, Hernaniko Bertso Lata astearen barruan egin zen lehen esperimentazioa. Ornitorrinko bat zen publikoa bera, sekula areto berean batu ez ziren ezaugarri osatua: musika garaikideko artistak, bertso mundukoak eta zerbait desberdina entzun nahi zuen kaleko jendea. Barruak mugituta irten ziren aretotik: artistikoki hunkituta asko, eta gehienak, oso barruko kontuak adierazita ikus-entzun zituztelako. Musikak eta hitzak iradokitako sentsazioen esperientzia hartan, dena ulertzeko pretentsioari momentu hura bizitzeak gain hartu zion. Bizitzan eta zure barruan ezer mugitzeak edo planteatze hutsak beldurtzen bazaitu, ez zaitu erakarri emanaldiak. Emanaldi ausartari publiko ausarta zor zaio.



B I L B O

Maiatzaren 31tik ekainaren 10a arte, Arenalean

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!